

Altzuetak irabazi du Gipuzkoako Foru Aldundiaren sagardo lehiaketa

Kronika - Erredakzioa 2021-06-20 00:00



Altzuetako Ibon Alkorta, txapela jantzita, Markel Olano diputatu nagusiarekin.

23 sagardotegiren artean onena izan da hernaniarra, eta berak irabazi du lehiaketaren 20garren edizioa.

Altzuetako sagardotegi hernaniarrarena da aurtengo sagardo onena. Hala erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere sagardo lehiaketaren 20garren edizioan. Atzo goizean egin zuten sari banaketa, foru jauregiko tronu aretoan; eta bertan jaso zuen saria Ibon Alkortak, Altzuetaren izenean, Markel Olano diputatu nagusiaren eskutik.

Gipuzkoako 23 sagardotegik hartu dute parte aurtengo lehiaketan, eta denetan onena izan da Altzuetako. Aurreneko dastaketa bat egin zuten, eta sagardo guztiak puntuatuta, hiru kategoriatan banatu zituzten: 72 puntutik gorakoek urrea, 65-72 puntu artekoek zilarra, eta 60-65 puntukoek brontzea.

Akarregik, Altzuetak, Gurutzetak, Itxas-Buruk, Zapiainek eta Zelaiak, urrea

Horrela, 12 sagardotegik lortu zuten urrezko kalifikazioa; tartean, bailarako seik: Astigarragako Gurutzetak eta Zapiainek; eta Hernaniko Akarregik, Altzuetak, Itxas-Buruk eta Zelaiak.

Beste bi astigarrak ere lortu zuten kalifikazio berezia: Alorreneak zilarrezkoa; eta Lizeagak brontzezkoa.

Urrezko kalifikazioa lortu zuten 12 sagardoekin, bigarren dastaketa bat egin zuten, eta horretan aukeratu zuten aurtengo txapelduna, Altzuetako.

Aurreneko aukeraketa, egin zuen Fraisoro Laborategiko dastatzaileek osatutako epaimahaiak; eta bigarrena, berriz, Fraisoroko hiru dastatzaileek, eta sagardotegiek eurek proposatutako hiru pertsonak: Mikel Rodriguezek, Aitor Mendiluzek eta Mikel Garaizabalek.

Markel Olano diputatu nagusiak nabarmendu zuen, «Gipuzkoako produktu izarretako bat» dela sagardoa, txakolinarekin eta gaztarekin batera, «bere balio kultural, gastronomiko eta ekonomikoa dela eta. Nazioartean ere posizionatzen gaituen eta izen ona ematen digun produktua da, edonoren aurrean harro erakusteko moduko edaria: gure lurretik sortua eta ekoiztua». Eta horren harira, nabarmendu zuen helburua dela Gipuzkoako sagardoaren %100 bertako sagarrekin ekoiztera iristea: «asko dira onurak, prozesu guztiaren kontrola gauzatzeko, lehiakortasun haundiagoa izateko, eta Kilometro Oren aldeko apustuarekin jarraitzeko».

[Ekonomia Astigarraga Hernani](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikalari gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez Kronikalari!

Erantzun ▼



Ikusienak



[Gabonetarako tokiko opari alternatiboak erosteko aukera paregabea, bailarako sorkuntzekin](#)

Kronika - Erredakzioa
abe 11, 00:00

[Urumea](#)



[Uholdeak Urumea bailaran](#)

[Iruditan](#)

Kronika - Erredakzioa
abe 10

[Urumea](#)



[Urak hartuta esnatu ziren bailarako toki asko atzokoan, eta aurreikuspena ez da hobea gaurko](#)

Kronika - Erredakzioa
abe 11, 00:00

[Urumea](#)



[Urumea ibaiaren maila jaitsi egin da](#)

Kronika - Erredakzioa
abe 11, 09:50

[Urumea](#)



[Kroketak, legatza, txuleta, eta postrerako... etxeke natilak](#)

[Gabonak](#)

Kronika - Erredakzioa
abe 11, 00:00

[Urumea](#)



[Eguberri doinuak argizpi](#)

Aloña Beraza Peña abe 11, 00:00

[Hernani](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkarte](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika@kronika.eus



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[AIURRI](#)

[ALEA](#)

[AMEZTI](#)

[ANBOTO](#)

[ANTXETA](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[BARREN](#)

[BEGITU](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GEURIA](#)

[GOIENA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[MAXIXATZEN](#)

[NOAUA](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[PLAENTXIA](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#) [Plazanbaza](#) [Itap](#)

[Tokikom publizitatea](#)